



2015EKO URTARRILAREN 23KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabosteko urtarrilaren hogeita hiruan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakari-tzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Kepa Goenaga Alikostes eta Maialen Aldasoro Aranburu zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2015eko urtarrilaren 9an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 110 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, LAUROGEITA BI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO ETA BERROGEI ZENTIMO (82.384,40 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- 1 H.J.A. -C.A.F.- EKO 1.1. BURUTZE UNITATEAREN BIRPARTZELAKETA PROIEKTUA.-

2014ko ekainaren 20ean egindako tokiko gobernu batzarraren akordio bidez eman zitzaion behin betiko onarpena 1 H.J.A. -C.A.F.- eko 1.1. burutze unitatearen birpartzelaketa proiektuari.

Akordioaren izapidaketa egiten ari zenean eta dokumentua, bere inskribaketarako, Jabetza Erregistrora bidali aurretik ADIFen ordezkariak udalari jakinarazi zion emandako lursailen 5 zbk.dunaren egoera ez zela zuzena.

Hau C.A.F.i jakinarazi zitzaion eta honek 2014ko irailaren 9an birpartzelaketa proiektuaren bertsio berri bat aurkeztu zuen.

Dokumentu honi eta ondorengo beste bati hainbat zuzenketa egin ondoren, azkenik 2014ko azaroa data daraman bertsio berri bat aurkeztu da eta udal Zerbitzu teknikoek bere oniritzia eman diote.

Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako hau erabakitzen du:



- 1.- 2014ko azaroa data daraman dokumentuaren arabera 1 H.J.A. -C.A.F.- eko 1.1. burutze unitatearen birpartzelaketa proiektuari onarpena ematea. Orain onartzen den dokumentua, aipatu diren zuzenketekin 2014ko ekainaren 20ean onartutako dokumentuarekin bategindakoa da.
- 2.- Akordioa interesatuei jakinaraztea eta akordioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari- an argitaratzea.

IV.- KOMUNIKAZIO DIRULAGUNTZAK .-

Komunikazio Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batza- rrek honako akordioak hartzen ditu:

- Goierriko Hedabideak S.L..- Goiberri aldizkariaren argitalpenagatik, udal honek bere 2014ko aurrekontuan aurreikusita daukan dirulaguntzaren bigarrenengo erdia ordain- tzea, hau da, MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO (1.350 €) ordain- tzea.
- Goierriko Hedabideak S.L..- Goierriko Hitzaren argitalpenagatik, udal honek bere 2014- ko aurrekontuan aurreikusita daukan dirulaguntzaren bigarrenengo erdia ordaintzea, hau da, BOST MILA ETA LAUEHUN EURO (5.400 €) ordaintzea.
- Goierriko Ikuskari S.L..- Goierriko udal eta GITBren artean (Goierriko Irrati Telebista) izenpetutako hitzarmenaren arabera, Goierriko Ikuskari S.L.k eskualderako ematen duen komunikazio zerbitzua finantzatzeko Goierriko udalek urtean biztanleko 2 €rekin lagunduko dute. Hori horrela izanda, orain urteko dirulaguntzaren bigarrenengo erdia ematea onartzen da, hau da, BOST MILA ETA LAUEHUN EURO (5.400 €) ematea."

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak lau gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

